

DEIALDIA: OSASUN ARLOAN TEKNOLOGIA GARATZEKO PROIEKTUAK 2017 (CIIIOI)

Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak, Carlos III.a Osasun Institutuaren (ISCIII) bidez, 2015 urteko laguntzen deialdia egin du osasun arloan teknologia garatzeko proiektuetarako. Deialdia 2013-2016 aldiko Osasunaren arloko Ekintza Estrategikoaren barruan dago.

(http://www.boe.es/diario_boe/verifica.php?acc=Verificar&c=BOE-B-2017-25619)

Interneteko helbidea:

<http://www.isciii.es/ISCIII/es/contenidos/fd-investigacion/fd-financiacion/fd-convocatorias-ayudas-accion-estrategica-salud/acceso-solicitud-ayudas.shtml>

Deialdiaren helburua:

Garapen proiektuak finantzatzea, betiere proiektu horiek kontrastatuta dauden atariko esperientzietan oinarrituta, eta garapen fasean bultzatuko direnak.

Proiektu motak eta horien ezaugarriak:

- a) **Bakarkako Proiektuak:** erakunde eskatzaile batek aurkeztuta eta ikertzaile nagusi batek, buru gisa, zuzenduko duen talde batek gauzatuta.
- b) **Koordinatutako Proiektuak:** bi azpi proiektuz edo gehiagoz osaturik, hainbat erakunde eskatzailek eskatuta. Memorian egokiro justifikatu beharko dute proposatutako xedeei ekiteko koordinatzeko duten beharra, baita espero dituzten etekinak ere.

Proiektuak burutzeko epe arrunta bi urtekoa izango da, erabakian zehazten den egunetik kontatzen hasita.

NAHITAEZKOA izango da proiektuek garapenean eta haien emaitzetan interesa duten enpresekin edo beste erakunde publiko edo pribatuekin lotura izatea, eta parte hartze horrek ez die ekarriko inolako laguntza zuzenik, enpresa edo erakunde horiei, deialdi honetan eman litezkeen diru laguntzen kontura.

Subentziona daitezkeen kontzeptuak:

Gomendagarria da deialdiaren 76. eta 93.5. artikulua kontsultatzea, beran jasotzen baitira proiektuetan inputa daitezkeen gastuak. **Honako hauek geratzen dira espresuki kanpoan:**

- Langileen kontratazioa
- Informatika eta kopiagintzako kontsumigarriak, bulegoko materiala, zientzien elkartetarako kuotak eta argitalpenen harpidetzak.
- Jatorduen eta protokolozko arretarako gastuak.

Eskaerak aurkezteko epeak:

Hau da eskaerak egiteko epea: **2017eko apirilaren 27tik maiatzaren 25eko 15:00ak arte** (bi egunak barne).

Eskaera nola egin:

Deialdi honetan **UPV/EHUk eskari bakar bat babestu dezake**. Horregatik, aplikazioan datuak sartu aurretik, Ikerketaren arloko Errektoreordetzara mezu elektronikoa bidali beharko da (convocatorias.dgi@ehu.es), **maiatzaren 17a baino lehen**, esanez deialdi honetara aurkeztu nahi dela. Mezu horrekin honako hauek bidali beharko dira:

- Langileen **Excela**, **Ikerketaren webgunean** eskegitakoa (<http://www.ehu.eus/eu/web/ikerketaren-kudeaketa/deialdiak-estatu-deialdiak>), ekipoa berrikusteko, deialdian ezarritako betekizunen/bateraezintasunen arabera.
- Eskari inprimakia
- Proiektuaren memoria.
- Ikertzaile nagusiaren (eta, hala balegokio, IN kidearen) CVA-k, **CVN editoreak** automatikoki edo CVA zerbitzua eskainiko duen FECYT-en CVN arauan ziurtatutako edozein erakundek sortuta.

Ikerketa Batzordeak aztertuko ditu dokumentu hauek eta erabakiko du **zein izango den UPV/EHUk babestuko duen eskaria**. Erabakia mezu elektronikoa bidez jakinaraziko zaio ikertzaile nagusiari. **Epez kanpo jasotzen diren eskariak baztertuta geratuko dira besterik gabe.**

IGBBren onarpena jaso ondoren, eskaerak elektronikoki beteko dira, ISCIIn webguneari bidez: <https://says.isciii.es/comun/inicio0.aspx?ta=1&anio=2017>

Aplikazio elektronikoa aukera ematen du eskariak grabatzeko, ziurtagiri elektronikoa eta ziurtagiri elektronikorik gabe sartuz. Aukeratutako sarbide mota edozein delarik, aurtengo **berrikuntza** da edizio honetan eskaria egin daitekeela ziurtagiri elektronikorik gabe (erabiltzaile izenez eta pasahitzaz sartuta) eta, eskaria sortzerakoan, **elektronikoki sinatzeko sortzeko aukera** hartzen bada **ziurtagiri elektronikoa egin izan balitz bezala** ("Generar Solicitud Electrónica"). Ikerketaren arloko Errektoreordetzak **biziki gomendatzen du modalitate hau erabiltzea**, horretarako prestatutako menua baliatuta, eta behin betiko eskaria **2017ko maiatzaren 22a baino lehen** sortzea.

Guardar

Guardar y Salir

Ver borrador

Generar Solicitud Electrónica

Salir

Legezko ordezkariaren sinadura elektronikoa lortzearen, **eskaria aurkeztu ahal izateko nahitaez eta ezinbestean behar den bakarra**, convocatorias.dgi@ehu.eus helbide elektronikora igorri beharko da mezu bat non jasoko den eskaria sinadurarako sortua dela.

GARRANTZITSUA: ISCIIn laguntzak tramitatzeari dagokionean, **eskaria, memoria eta ikertzaile nagusiaren CV ezin izango dira zuzendu**, behin aplikazioan sartu ondoren. **Hiru dokumentu hauetako bat aurkeztu ez** edo **formulario arautuez besteko eruedetan aurkeztu bada**, eskaria kanpoan geratuko da onarpen tramitean.

Aplikazio telematikoa bidez tramitatutako eskarien formularioek, erakunde **eskatzaillearen legezko ordezkariaren sinadura besterik ez dute beharko**. Deialdiak, hala ere, eskatzen dio erakunde onuradunari proiektuetan parte hartzen duten gainontzeko pertsonen jatorrizko sinaduren egiazkotasuna eta gordailua egin dezan. Horregatik, prozesua amaitu eta gero, ahal denik eta lasterren bidali beharko zaio Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren deialdien atalari **eskariaren ale bat, non agertuko diren ikertzaile nagusiaren eta ekipoen parte hartzen duten gainontzeko kide guztien sinadurak**.

Ez da sinatuko aipatutako egun horren ondoren jasotzen den inolako eskabiderik: automatikoki baztertuko da hautatze prozesutik.

Informazio gehiago:

Hauek dira erakundearen (hau da, UPV/EHUren) datuak eskaria betetzeko:

IFK: Q4818001-B

Helbide soziala: Sarriena auzoa, zk.g., 48940 (Leioa)

Lege ordezkaria: Jose Luis Martín González

Kargua: Ikerketaren arloko errektoreordea

Komenigarria da laguntzaren gida eta ohiko galderen atala irakurtzea ISCIII-ren webgunean:

- http://www.isciii.es/ISCIII/es/contenidos/fd-investigacion/fd-financiacion/fd-convocatorias-ayudas-accion-estrategica-salud/2017/DTS_17_PREGUNTAS_FRECUENTES.pdf
- http://www.isciii.es/ISCIII/es/contenidos/fd-investigacion/fd-financiacion/fd-convocatorias-ayudas-accion-estrategica-salud/2017/DTS_17_GUIA_DE_AYUDA.pdf

Informazioa UPV/EHU:

Telefono zenbakia: 94 601 80 08

E-maila: convocatorias.dgi@ehu.es